

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko maiatzaren 25a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta hauen zirriborroak: 2021eko apirilaren 29ko, maiatzaren 27ko, ekainaren 24ko, uztailaren 29ko, irailaren 30eko, urriaren 28ko, azaroaren 25eko eta abenduaren 30eko eta 2023ko urtarrilaren 26ko eta otsailaren 23ko ohiko bilkuretakoak; 2021eko azaroaren 18ko eta 2023ko martxoaren 29ko ezohiko bilkuretakoak; eta 2023ko maiatzaren 8ko ezohiko bilkura urgentekoa.

- 2.- 2023ko udal-aurrekontuaren lehenengo hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 3.- 2023ko lehen hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 4.- 2019, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldi ekonomikoetako aurrekontu propioen likidazioak (2019-2023 udal-agintaldikoak) onartzen dituzten alkate-dekretuen berri ematea.
- 5.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2022ko aurrekontuaren Kontu Orokorra.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HAUEN ZIRRIBORROAK: 2021EKO APIRILAREN 29KO, MAIATZAREN 27KO, EKAINAREN 24KO, UZTAILAREN 29KO, IRAILAREN 30EKO, URRIAREN 28KO, AZAROAREN 25EKO ETA ABENDUAREN 30EKO ETA 2023KO URTARRILAREN 26KO ETA OTSAILAREN 23KO OHIKO BILKURETAKOAK; 2021EKO AZAROAREN 18KO ETA 2023KO MARTXOAREN 29KO EZOHICO BILKURETAKOAK; ETA 2023KO MAIATZAREN 8KO EZOHICO BILKURA URGENTEOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork akten zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren akta hauek: 2021eko apirilaren 29ko, maiatzaren 27ko, ekainaren 24ko, uztailaren 29ko, irailaren 30eko, urriaren 28ko, azaroaren 25eko eta abenduaren 30eko eta 2023ko urtarrilaren 26ko eta otsailaren 23ko ohiko bilkuretakoak; 2021eko azaroaren 18ko eta 2023ko martxoaren 29ko ezohiko bilkuretakoak; eta 2023ko maiatzaren 8ko ezohiko bilkura urgentekoa.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ez duela behar adina denborarik izan udalbatzarraren akten zirriborro horiek arretaz irakurtzeko, baina, nolanahi ere, ez dutela eragozpenik jarri akta horiek onartzeko, konfiantza dutelako udal-idazkariarengan, Udalaren egintzen eta erabakien fede-emaile publikoa den aldetik.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza eta hau adierazten du: kontuan hartuta udal-idazkariak bere egin duela, lehen pertsonan eta osotasunean,

akta horiek berandu idaztearen ardura, bera delako Udalaren egintzen eta erabakien fede-emaile publikoa, barkamena eskatu behar diola aurreko alkate Jose Angel Zalduari, bere garaian hari leporatu izan ziolako udalbatzarraren aktak berandu jasotzearen ardura.

2.- 2023KO UDAL-AURREKONTUAREN LEHENENGO HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.- 2023KO LEHEN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTEZKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- 2019, 2020, 2021 ETA 2022KO EKITALDI EKONOMIKOETAKO AURREKONTU PROPIOEN LIKIDAZIOAK (2019-2023 UDAL-AGINTALDIKOAK) ONARTZEN DITUZTEN ALKATE-DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

5.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2022KO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2022ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertze eta, epe horren barruan, eragozpenak edo oharak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2023ko apirilaren 27ko GAO n (80. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea, eragozpenak edo oharak aurkezteko, 2023ko apirilaren 28an hasi zen eta maiatzaren 19an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO];** gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2022ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta adierazten du oso pozik daudela osoko bilkura honetan emandako informazio ekonomikoarekin, erakusten duelako oso ekitaldi indartsua izan dela eta Udala bide zuzenean doala, emaitza ekonomiko bikainak izan direlako. Adierazten du Orioko Udalak lan ona egin duela hainbat eta hainbat gaitan: Mutiozabal, Herriko Plaza, futbol-zelaia, argiteria publikoa, Zaragueta ikastetxeko lanak, udaltzaingoaren bulego berriak...

Jose Angel Iparragirre zinegotziak, ondoren, adierazten du ORAIN talde politikoak ez duela hautagai-zerrendarik aurkeztuko 2023ko maiatzaren 28ko toki-hauteskundeetara eta, beraz, bukatutzat jotzen duela 12 urteko ibilbide politikoa; hori dela-eta, agur gisa, idatzi bat irakurtzen du, hitzez hitz honela dioena:

ORAIN AGUR

Gaingan ditugu udal hauteskundeak eta guri agur esatea tokatzen zaigu. 2011ean jaio zen talde indartsuak eman du eman beharrekoa eta, hiru legealdiren ondoren, gure ibilbidea bukatzeko momentu ona dela iruditu zaigu.

Talde hau jaio bazen Orioko udalak zeraman martxa aldatzeko izan zen. Jende desberdin asko ginen, herriko talde desberdinetan lanean jardun eta Udalarekin deseroso geundenak. Batez ere, egiteko moduak ziren aldatu nahi genituenak eta horretan saiatu gara hamabi urte hauetan.

Gogorra bezain polita izan da, gai asko eta oso desberdinak izan ditugu mahai gainean, baina guztietan jator eta zintzo jardun gara. Jarrera eraikitzailea izan dugu ardatz beti eta gure ekarpen guztiak oriotarren bizitza hobetzen laguntzeko izan dira.

Jaso ditugun botoak erantzukizun eta ardura handiz erabili ditugu eta erabakigarriak izan dira askotan. Horregatik, lasai eta harro gaude egindako guztiarekin, gustura.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu guregan konfiantza jarri duzuen guztiei, baita ere hau aurrera eramaten lagundu diguzuenei, Udaletxeko langileetatik hasita, eta nola ez gure zinegotziei (Jokin, Miriam, Txabola, Iparra), zuei tokatu zaizuelako aurpegia ematea.

Bestalde, Jose Angel Iparragirre zinegotziak maila pertsonaleko balorazio bat ere egiten du:

- Orain dela 12 urte, ORAIN plataformak bere ibilbide politikoa abiatu zuenean, udal-kanpina «hiltzeko zorian» zegoen, eta orain, berriz, «la joya de la corona» da.

- Oso pozik dago udalbatzarrak, 2022ko abenduan, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari lehen onarpena eman diolako.
- Oso pozik dago, baita ere, 2022ko azaroan Udalaren 2023ko aurrekontu propioa onartu delako, 47 udal-lanpostu jasotzen dituen lanpostu-zerrendarekin batera.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSO Eren izenean, 2019-2023 udal-agintaldi honen balorazioa egiteko. Adierazten du agintaldi hau ona izan dela eta Udalak lan handia egin duela eta ondo. Nabarmentzen du Udalaren erabaki ia guztiak aho batez hartu direla. Beraz, EH Bildu taldeak gidatutako udal-gobernua izan denez, Anuska Esnal alkateari zorionak ematen dizkio, egindako kudeaketagatik:

- Informazioaren agintaldia gauzatu duen gobernu-taldea lideratu duelako.
- Udal-oposizioa kideak kontuan hartu dituen gobernu-taldea lideratu duelako; hau da, oposizioan pentsatuta gobernatu duelako.

Ana Priede zinegotziak adierazten du plazer bat izan dela agintaldi honetako zinegotziekin lan egitea, eta, ORAIN talde politikoari dagokionez, nabarmentzen du talde politiko horrek oriotarren interes orokorra jarri duela beti aurretik eta, horren ondorioz, udal-erabaki asko eta asko aho batez hartu ahal izan direla.

Bukatzeko, Jose Angel Iparragirre zinegotziari esaten dio plazer bat izan dela berarekin lan egitea, hutsune nabarmena utziko duela eta faltan bilatuko duela.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoaren balorazioa, udal-agintaldi honi dagokionez, ildo beretik joango dela. Bere talde politikoak bazekien Orioko Udalean lan asko zegoela egiteko, eta beti bilatu izan du taldeen arteko adostasuna; horren ondorioz, Udalaren erabaki ia guztiak aho batez hartu dira.

Lourdes Salsamendi zinegotziak adierazten du bere talde politikoak oriotarren interes orokorraren alde lan egin duela eta horrela jarraituko duela. Ondo baloratzen du Anuska Esnal alkatearen lana eta kudeaketa, eta adierazten du, baita ere, berak 12 urteko ibilbide politikoa egin duela Orioko Udalean, hiru agintaldi oso, eta horren balorazio ona egiten duela. Ondorioz, EAJ talde politikoa oso pozik dago 2019-2023 udal-agintaldi hau nola garatu den ikusita, eta Lourdes Salsamendik udal-langileak zoriontzien ditu, COVID-19ren pandemiaren ondorioei aurre egiteko erakutsi duten profesionaltasunagatik eta, azkenik, langilei eragiten dien behin-behineko lanpostuak egonkortzeko prozesuaren aipamena egiten du.

Lourdes Salsamendik, bukatzeko, zorionak ematen dizkie Udala utziko duten Bakartxo, Beñat eta Iparra zinegotziei eta, baita ere, bereziki, EAJ talde politikoko Jose Javier eta Andoni zinegotziei; eta eskerrik beroenak ematen dizkio Anuska Esnal alkateari.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du 2019-2023 udal-agintaldi honetan saiatu dela, bereziki, gardentasunez jokatzeko eta udalerriri ireki baten irudia

proiektatzen. Adierazten du agintaldi zaila izan dela COVID-19aren pandemiagatik eta Ukrainako gerraren ondorioengatik; baina, aldi berean, oso pozgarria, udal-aurrekontuak eta kreditua aldatzeko espediente asko aho batez onartu direlako, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari lehen onarpena eman zaiolako, etxe morea abian jarri delako eta inbertsio ugari egin direlako.

Anuska Esnalek adierazten du plazer bat izan dela hasieran ezarritako helburuak betetzea eta udal-agintaldia oso aberasgarria izan dela.

Agurrei dagokienez, eskerrik beroena ematen die zinegotzi-kargua utziko duten EH Bildu talde politikoko zinegotziei: Beñat Solaberrietari, udal barruko memoria historikoari dagokionez egin duen ekarpena nabarmenduz; eta Bakartxo Olideni, beti gardentasunez jokatu duelako. Era berean, eskerrak ematen dizkie zinegotzi-kargua utziko duten EAJko zinegotziei, egin duten lanagatik: Andoni Torresek, Ogasun- eta pertsonal-batzordean; eta Jose Javier Gomez de Segura, berriz, Kultura-batzordean.

Azkenik, Anuska Esnal alkateak adierazten du plazer handia izan dela Ana Priede zinegotziarekin eta Jose Angel Iparragirre zinegotziarekin lankidetzan estuan aritzea, beren kudeaketa eta lanarekin izugarri aberastu dutelako Udala 2019-2023 agintaldi honetan. Bukatzeko, eskerrak ematen dizkie, baita ere, gainerako zinegotzi guztiei eta udalbatzarrean parte hartu duten guztiei.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,